



Errefusa eta hondakin organikoaren bilketarako edukinontziak berriro ere txartel bidez irekiko dira

- **COVID19ak sortutako osasun alarma egoeran, eta segurtasun neurriak betetzeko, hartu zen edukinontziak irekitzeko erabakia**
- **Alarma egoera amaitu denez, eta normaltasunerako itzulera mailakatuan ematen hasi delarik, ekainak 29tik aurrera berriro ere hondakinen edukinontziak txartel bidez ireki beharko dira, ez dira momentu oro irekita egongo**

COVID19ak eragindako osasun alerta egoera zela eta, segurtasun neurriak bermatzeko asmoz, Andoaingo Udalak errefusa eta hondakin organikoaren bilketarako erabiltzen diren edukinontziak irekitzea erabaki zuen. Modu honetan, txartel bidezko kontaktua ekiditeko asmoarekin.

Alarma egoera amaitu denez, eta normaltasunerako itzulera mailakatuan ematen hasi delarik, ekainak 29tik aurrera berriro ere hondakinen edukinontziak txartel bidez ireki beharko dira, ez dira momentu oro irekita egongo. Honenbestez, edukinontziak ixtearekin, Andoaingo Udalak berriro ere hondakinen bilketa ohiko moduan burutuko du. Ekainak 29tik aurrera, zerrailak gainbegiratu ondoren edukinontzien itxiera gauzatuko da.

Bestetik, Tolosaldeako Mankomunitatetik jakinarazi du uztailetik aurrera, edukinontzietan irekiera-pedala jartzen hasiko direla. Honela, irekiera erraztuko da, erabiltzaileen babes neurriak eta baita irisgarritasuna bermatuz. Honetaz gain, edukinontzien desinfekzioarekin jarraituko du mankomunitateak orain arte bezala.

Honekin batera, berretsi egiten dugu, guztion konpromezuarekin, hondakinen sailkapenean hobetzeko konpromisoa. Modu honetan, espero dugu hondakinen bereizketari dagozkion Andoaingo zenbakiak hobetzen jarraitzea.

Andoainen, 2020ko ekainak 26



Los contenedores de recogida de rechazo y residuo orgánico se volverán a abrir mediante tarjeta

- **En el estado de alarma sanitaria generado por el COVID19, y en cumplimiento de las medidas de seguridad, se tomó la decisión de abrir los contenedores**
- **Dado que el estado de alarma ha finalizado y ha comenzado un retorno escalonado a la normalidad, a partir del 29 de junio los contenedores de residuos volverán a abrirse mediante tarjeta, no permaneciendo abiertos en todo momento**

Con el fin de garantizar las medidas de seguridad ante la situación de alerta sanitaria provocada por el COVID19, el Ayuntamiento de Andoain decidió abrir los contenedores destinados para la recogida de rechazo y residuo orgánico. De esta manera, se pretendía evitar el contacto con las tarjetas.

Dado que el estado de alarma ha finalizado y ha comenzado un retorno escalonado a la normalidad, a partir del 29 de junio los contenedores de residuos volverán a abrirse mediante tarjeta, no permanecerán abiertos en todo momento. Por lo tanto, con el cierre de los contenedores, el Ayuntamiento de Andoain volverá a llevar a cabo la recogida de residuos de forma habitual. A partir del 29 de junio se procederá al cierre de los contenedores una vez revisadas todas las aperturas.

Por otro lado, desde la Mancomunidad de Tolosaldea comunican que, a partir de julio, comenzarán a colocar el pedal de apertura en los contenedores. De esta forma, se facilitará la apertura, garantizando las medidas de protección de los usuarios y también la accesibilidad. Además de esto, la mancomunidad continuará con la desinfección de los contenedores como hasta ahora.

Junto a esto, reafirmamos, con el compromiso de todos, la apuesta para seguir mejorando en la clasificación de los residuos. De esta manera, esperamos seguir mejorando los números de Andoain correspondientes a la separación de residuos.

Andoain, 26 de junio de 2020